



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko martxoaren 15a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (8. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (13. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen kidegoetan sartzeko deialdietako merezimendu-lehiaketei dagokienez Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikulua garatzen duena. Izapidetzeko ez onartua (26. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan-eskaintza publikoan atera daitekeen lanpostuen kopurua mugatzen duen ordezkatzetasa ken dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negozia eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Agoitzen ikastetxe berri bat eraiki dezan eta San Miguel ikastetxe publikoa eta Agoizko DBHI bi ikastetxe bereizi gisa har ditzan. María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztu du (30. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi baitizkie Igoa y Patxi SL, Transtiermes SL, Belainpe SL eta Igoa y Patxi Logística SL enpresetako langileei eta beren lan-baldintzak hobetzeko mobilizazioei. Eledunen Batzarrak onetsia (31. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu ez dagoela ados inondik ere Auzitegi Nazionalaren epaiarekin, Altsasuko gazteei ezarritako zigor gogorrek berresten dituelako. Eledunen Batzarrak onetsia (31. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan zergatik ez den onetsi Nafarroako Gobernuak hitzemandako Enpleguari buruzko Legea. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (32. or.).
- Galdera, laguntza-produktuen sistema soziosanitario bat sortzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan zahar-etxeen fakturazioa dela-eta egindako auditoriaren emaitzari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (33. or.).
- Galdera, 2019ko English Week-erako deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, eremu ez euskaldunean Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko lehen mailan A eredu ezarriko duten ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztua (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko martxoaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hasierako hilabeteak joan diren honetan, testua tekniki

koki hobetzeko zenbait premia hauteman dira, baita zuzentzeko moduko zenbait akats ere.

Zehazki, aldaketa honen alderdirik nabarmenenak dira kontratuak formalizatzeari buruzko aurreikuspenetan sartzea honako hauek: lizitazio deialdirik gabe negoziatutako prozeduretan espedienteari hasiera emateko ebazpena kentzea; formula bidez ezin zenbatetsi diren irizpideak irekitzeko ekitaldiaren izaera publikoa kentzea; eta aldaketa batzuk egitea Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren funtzionamenduan eta kontratazioaren arloko erreklamazio berezian, zehazki erreklamazioa aurkezteko legitimazioa zabaltzea toki-korporazioetan akordioen kontra bozkatu duten kideei, garrario zerbitzuen kontzesiorako kontratuak sartzea erreklamazioen xede izan daitezkeen artean, eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak arautzea entitate kontratatzaileari dagokionez.

Kontratuaren formalizazioari dagokionez, apartatu berriak sartu dira 101. artikuluan arlo horretan zegoen hutsune bat betetzeko, jatorrizko testuak hainbat aldiz aipatzen baitzuten kontratuaren formalizazioa, baina ez baitzuen, ordea, berariazko arauketarik xedatzen.

Lizitazio deialdirik gabe negoziatutako prozeduretan, espedienteari hasiera emateko ebazpena kentzen da, karga administratibo bat delako eta, prozeduraren izaera ikusita, ez duelako baliorik eransten eta ez dituelako lizitatzailen interesak eta eskubideak ukitzen.

Bestetik, jada ez da esaten jendaurrekoa izanen dela formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideak irekitzeko ekitaldia, zeren 2018ko urriaren 18az geroztik modu elektronikoan lizitatu beharra dago Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bitartez. Plataforma horrek bermatzen du eskaintzak sekretupean daudela harik eta formula bidez zenbatetsi ezin diren irizpideen balorazioa bukatu arte, halako moldez non bermatzen baita balorazio hori egiten dutenen

independentzia eta, orobat, zuzen aplikatuko direla kontratazio publikoaren printzipioak, batez ere berdintasun-printzipioa. Hala ere, gardentasuna funtsezkoa denez kontratazio publikoaren sistema zuzenago bat lortzeko, informazio horren izaera publikoari eutsi zaio.

Aldatu diren gainerako artikuluetan, berriz, akats materialak zuzendu dira, eta azalpen edo zehaztapen teknikoak gehitu.

Artikulu bakarra.- Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 7.1.b) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“b) Zerbitzu publiko bat ematean ezartzen diren harreman juridikoak, zerbitzu publikoa ematen duen Administrazioaren edo kontratistaren eta zerbitzua baliatzeko ordaintzen duten erabiltzaileen artean, aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publiko bat ordaindu behar dutenean”.

Bi. 7.1.g) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“g) Merkataritza-aurreko izaera duten zerbitzuetarako kontratuak. Horretarako, sartuta egonen dira 73000000-2tik 73120000-9ra bitarteko CPV kodeak eta 73300000-5, 73420000-2 eta 73430000-5 CPV kodeak, salbu bi baldintza hauek betetzen badira:

1. Etekinak kontratazio organoarenak beste inorenak ez izatea, bere jardueran aritzeko erabiltzekoak.

2. Emandako zerbitzua kontratazio organoak ordaintzea osotara”.

Hiru. 8.6 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“6. Nahitaez bete beharreko aginduen bidez mamituko dira enkarguak, eta betiere adjudikazio botereari dagokio behar bezala exekututzen direla gainbegiratzea.

Enkargua egiten duen adjudikazio botereak ordaindu beharreko zenbatekoa ez da handiagoa izanen hura exekutatzeko beharrezkoak diren kostu errealen itzulketa baino.

Baldin enkarguen balioa zenbateko txikiko kontratuetarako araubide berezirako ezarritako balioetik gorakoa bada, haiek egiteko agindua Kontratazio Atarian argitaratuko da, labor azalduta agindua justifikatzen duten egitatezko inguruabarrak eta

zuzenbideko oinarriak, eta enkarguak ez dira exekututzen hasiko iragarkia argitara eman eta hamar egun natural iragan baino lehen.

Enkarguaren zenbatekoa Europako gutxienekoa baino handiagoa denean, hura egiteko agindua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratu beharko da, eredu ofizialen arabera, onetsi eta berrogeita zortzi eguneko gehieneko epean”.

Lau. 13.1 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Kontratazio organoek aldi baterako enpresa-elkarteekin edo batera parte hartzen duten lizitatzailleekin kontratatzen ahalko dute. Partehartze horretarako agiri pribatu bat egin behar da; bertan, lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi, lizitatzaille bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen hura azkendu arte; horrek ez du eragotziko kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izatea”.

Bost. 14.4 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“4. Zerbitzu kontratuak adjudikatzeko prozedu-retan, lizitatzailleek beren jatorrizko herrialdean dena delako zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat edo erakunderen bateko kide izan behar duten kasuetan, baimen hori badutela edo erakunde horretako kide badirela frogatzeko eskatzen ahalko zaie”.

Sei. 17.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Gehienez ere azken bost urteetan egindako obren zerrenda. Berme gisa, obra garrantzitsuenak behar bezala exekutatu direla dioten ziurtagiriak erantsiko dira, eta horietan datu hauek ageriko dira: obra-exekuzioaren zenbatekoa, data eta lekua, adierazita lanbidearen araei jarraituz egina den, gorabeherarik gabe eta ongi burururik. Adjudikazio botereek kontuan hartu ahalko dituzte aurreko aldietan eginiko obren frogak, horrela jokatzeko komenigarri egiten duten inguruabarrak aurretiaz justifikatzen badira”.

Zazpi. 23.2 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Apartatu bereko c), d), e), f), g) eta h) letretan ezarrita dauden kontratatzeko debekuak daudela automatikoki xedatuko dute kontratazio organoek, eta debeku horiek iraunen dute haien zio diren egoerek dirauten bitartean”.

Zortzi. 34. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Kontratuen araubide juridikoa.

1. Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa administratiboa izanen da, non legeak ez duen besterik xedatzen.

Kontratu horiek arautuko dira, haien prestaketari, adjudikazioari, ondorioei eta azkentzeari dagokienez, foru lege honen xedapenen eta erregelamenduen bidez. Osagarri gisa, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratazio organoak du kontratuak interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko, suntsiaraztea erabakitzeke eta horren ondorioak zehazteko prerrogatiba. Prerrogatiba horiek erabiliz hartzen diren erabakiei erreklamazioa edo errekurtoa aurkezten ahalko zaie, foru lege honetan eta administrazio zuzenbideko gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

Administrazioaren kontratu pribatuak arautuko dira, haien prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, eta berariazko administrazio araurik ezean, foru lege honen eta bera garatzen duten xedapenen bidez; eta, haien efektuei eta azkentzeari dagokienez, berriz, zuzenbide pribatuko arauen bidez.

Ondareari buruzko legeriak arautuko ditu jabari publikoko ondasunen gaineko baimenak eta kontzesioak eta ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak, baita salerosketa, dohaintza, errentamendu eta trukaketa kontratuak eta ondasun higiezin, jabetza gorpuzgabeen eta balore negoziagarrien gaineko antzeko negozio juridikoen kontratuak ere. Espainiako Ondare Historikoko ondasunen eskuraketak ere ondare legeriaren bidez arautuko dira.

2. Administrazio publikoaren izaerarik ez duten adjudikazio botereek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa honako hau izanen da:

a) Kontratuen prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, kontratuak foru lege honen bidez arautuko dira.

b) Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, salbuespena izanik foru lege honetan exekuzio-, aldatze- eta azpikontratatzeko baldintza bereziki buruz ezarritakoa.

3. Adjudikazio botere izan gabe foru lege honen 5. artikuluan arabera beren xedarengatik foru lege honen mende dauden entitateek egin-

dako kontratuen araubide juridikoa izanen da artikuluhon 2. apartatuan ezartzen dena.

4. Adjudikazio boterearen izaerarik ez duten gainerako entitate publikoek egindako kontratuetan printzipio hauek errespetatu beharko dira: berdintasuna, diskriminaziorik eza, gardentasuna, publikitatea eta lehia librea.

5. Baldin eta 4.1 e) artikuluan zentzuan administrazio publikoari lotuak edo haien mendeak diren entitateek eginiko jarduerak badira, eta foru lege honen xedapenen mendeak, administrazio-bidean aurkaratzen ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraituz, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edota haren zaintza dagokion departamentu, organo, ente edo erakundearen titularraren aurrean. Entitate kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, organo eskuduna izanen da kontrola edo partaidetzaren gehiengo duena”.

Bederatzi. 51.1.e) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“e) Eskaintza ekonomikoak irekitzea eta ekitaldi horretan gertatzen diren gorabeherak ebaztea”.

Hamar. 60.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Foru lege honen 61. artikuluan jasotako zehaztapenei erreferentzia eginez, adierazitako lehenetsun-ordena berean, «edo baliokidea» aipamena gehituta”.

Hamaika. 73.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Prozedura murriztuan edozein enpresak edo profesionalek eskatzen ahal du prozeduran parte hartzea, baina kontratazio organoak hautatzen dituen enpresa edo profesionali bakarrik eginen zaie gonbidapena eskaintza aurkezteko”.

Hamabi. 95.3. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Nafarroako lizitazio elektronikoen plataforman aurkeztuko da abian diren lizitazioei dagokien dokumentazio guztia, dokumentazioa ireki arteko konfidentzialtasun-bermearekin; horrez gain, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko modua egonen da, hark eskaintzari buruz eskatutako zuzenketak edo argibideak egite aldera, eta eskaintzak irekiko dira, prozedurak horretara behartzen duenean. Kontratazio publikoko ondorio guztietarako, tankeratuko da foru lege honen aplikaziopean dauden entitate guztien egoitza elektronikoa bezala eta erregistro laguntzaile bezala”.

Hamahiru. 97. artikulua izenburua eta 4. puntua aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“97. artikulua. Eskaintzak irekitzea eta baloratzea.

(...)

4. Balorazio hori egin eta gero, edo onartutako eskaintzak aztertuta, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, gutxienez hiru egun lehenago, formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa jendaurrean irekitzeko tokia, eguna eta ordua. Eskaintzaren zati hori isilpean gorde behar da Kontratazio Atarian adierazitako unea arte. Behin dokumentazioa irekita, jendaurrean jarriko da pertsona lizitatzailerako bakoitzak formula bidez zenbatetsi ezin diren irizpideen balorazioan lortutako puntuazioa, bai eta aurkeztutako eskaintzak formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideetan lortutakoa ere”.

Hamalau. 100.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Kontratazio organoak hilabeteko gehieneko epean adjudikatuko du kontratua eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitalditik hasita, non ez den beste epe bat ezarri agirietan.

Epe horietan adjudikazioa ematen ez bada, lizitazioan parte hartzeko onartutako enpresek beren proposamenak bertan behera uzten ahalko dituzte inolako zigorrik jaso gabe”.

Hamabost. 101. artikuluar 6., 7., 8. eta 9. zenbakiak gehitzen zaizkio, testu hau dutenak:

“6. Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira 15 egun naturaleko epean, esleipenaren etenaldia amaitzen denetik aurrera. Administrazio agirian formalizatutako kontratuak edozein errejestro publikotan sarrera izateko aski titulu izanen dira.

7. Kontratistari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua behar den epean formalizatzen ez bada, kontratazio organoak bi aukera izanen ditu: kontratua suntsiaraztea, interesdunari entzun ondoren, eta lizitaziorako jarritako bermeak atxikitzea edo interesdunari penalizazioa ezartzea, kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5ekoa hain zuzen, eta kalte-ordain osagarria eskatzea portzentaje horren gainera eragindako kalte eta galerengatik; edo beste epe bat ematea, luzaezina, kontratuaren exekuzioa atzeratzen den kasuetarako kontratazioa arautzeko agirietan aurreikusitako penalizazio araubidea aplikatuta.

8. Kontratua behar zen epean formalizatu ez izanaren arrazoiak administrazioari egozten ahal bazaizkio, kontratistak kontratua suntsiarazteko

eta dagokion kalte-ordaina emateko eskatzen ahalko du.

9. Kontratua formalizatu arte ezin izanen da kontratuaren gauzatzea hasi, ezertan ukatu gabe larrialdiko kontrataziorako, presaz izapidetzen diren kontratueterako eta faktura izan ezik beste agiririk eskatzen ez den prozeduretarako aurreikusitakoa”.

Hamasei. 121.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak buru bat eta beste bi kide izanen ditu, hirurak Foru Komunitateko Administrazioaren, Nafarroako toki entitateen edo foru lege honen menpeko beste entitate batzuen zerbitzuko jarduneko funtzionarioak, beren izendapenerako zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna izatea eskatu bazitzaie; haien hautapena Nafarroako Gobernuak egingen du, Kontratazio Publikorako Batzordeak igorritako proposamenarekin bat, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Hautapena sei urterako izanen da, eta kideok ezin izanen dute berriz hautatuak izan. Epe horretarako ordezkioak ere hautatzen ahalko dira, kargua hutsik dagoenerako, edo titularra kanpoan edo eri dagoen kasuetarako. Epaimahaibururik ez badago, hura falta bada edo eri badago, haren ordezkio arituko da antzinatean handiena duen epaimahaikide titularra, eta adinean zaharrena, hurrenkera horretan. Nafarroako Parlamentuari izendapenaren berri emanen zaio”.

Hamazazpi. 123. artikuluar 3. zenbakia gehitzen zaio, testu hau duena:

“3. Nafarroako toki entitateetako kideek zilegi dute erreklamazio berezia aurkezteko aurkaratutako egintza eta akordioen kontra bozkatu badute, hala xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 63. artikulua”.

Hemezortzi. 124.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Iragarki bat eta haren dokumentazioa aurkaratzeko epea hasiko da lizitazio iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik; edo, han argitaratzea beharrezkoa ez denean, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian agertu eta biharamunetik; edo esleipenaren iragarkia argitaratu eta biharamunetik, beharrezkoa ez denean lizitazio iragarkia argitaratzerik”.

Hemeretzi. 125.4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"4. Kautelazko neurriak edozein unetan eten, aldatu edo errebotatzen ahalko dira, ofizioz edo alderdi interesdunek eskatuta, horretarako oinarri hartuz gerora gertatu diren edo neurriak hartu zirenean ezagun ez ziren inguruabarrak, salbu eta foru lege honen 124.4 artikuluan adierazitako etenduran, kasu horretan xedapen horri berari jarraituko baitzaio. Ebazpen horren kontra ez da errekurtsorik onartuko, deusetan galarazi gabe bidezko diren errekurtsuak jarri ahal izatea prozedura nagusian ematen diren ebazpenen kontra".

Hogei. 127.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Erreklamazioari buruzko ebazpena hogeii egun balioduneko epean emanen da, hura aurkezten denetik hasita. Epe hori iraganik ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, interesdunak ulertzen ahalko du erreklamazio berezia ezetsi egin dela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteari begira, eta, entitate kontratatzailearen kasuan, espedientearen tramitazioarekin jarraitzearen ondorioetarako, eta, behar denean, kontratua betearaztearen ondorioetarako".

Hogeita bat. 138.4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"4. Kontratazio espedientearen osaturik, kontratazio organoak ebazpen arrazoitua emanen du hura onesteko eta adjudikazio prozedurari hasiera

emateko, salbu eta prozedura erraztuan, lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatuan eta zenbaterako txikiko kontratueterako prozedura berezian. Ebazpen horretan gasturako baimena ere jasoko da".

Hogeita bi. Bederatzigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakia aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. 4.1.e)artikuluak aipatzen dituen entitateek baimena eskatu beharko diote tutoretza egiten duen Administrazioari, BEZik gabeko balio zenbatetsia 3.000.000 euro baino gehiagokoa duten kontratuak onesteko, bai eta urte anitzekoak direnetarako ere, xedapen honen 1.b) apartatuan aurreikusitako baldintza berberetan".

Hogeita hiru. Hamahirugarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Foru lege honetan zerbitzuen emakidetakoko iraupenaz xedatutakoak ez dira aplikatuko bidaiarien garraio-zerbitzuen emakidetan 1370/2007 (EE) Erregelamenduan jaso bezala, emakida horien epea haien araudi berariazkoak zuzenduko baitu.

2. Kontratazio publikoaren arloan erreklamazio bereziaren xede izan daitezke, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, foru lege honen 122. artikulua 2. apartatuan zerrendatutako egintzak, jorratzen dituztenak bidaiarien garraio publikoko kontzesioak, 1370/2007 (EE) Erregelamenduaren ildotik"

Foru Lege proiektua, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2019ko otsailaren 1eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

4.7 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“7. Beharrezkoa izanen da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioa izatea nagusiki edo berariaz arreta berezia eskatzen duten pertsonen zuzendutako gorputz- eta kirol-ekintzetan jarduteko kirol-monitorearen lanbidean; arreta berezia eskatzen dutenen artean daude, esate baterako, adineko pertsonak (gorputz- eta kirol-ekintzak gauzatzeko zailtasun bereziak badauzkate), edota osasun-arazoak eta antzekoak dituztenak. Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izanen dituzte eskudantziak, osasun arloko lanbideak antolatzeke legeriaren arabera”.

Zioak: “eta antzekoak” kentzea proposatzen da, ez diolako ezer ere ekartzen testuari.

2. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4. artikuluko 7. apartatua aldatzeko zuzenketa.

“7. Beharrezkoa izanen da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioa izatea nagusiki edo berariaz –adina, ahalmen fisiko edo psikikoa, inguruabar sozialak edo osasuna direla-eta– arre-

ta berezia eskatzen duten pertsonen zuzendutako gorputz- eta kirol-ekintzetan jarduteko kirol-monitorearen lanbidean. Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izanen dituzte eskudantziak, osasun arloko lanbideak antolatzeke legeriaren arabera”.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea; testu berria orekatuagoa da, eta osasun arloko lanbide-ekiko inbaditzailea dela irizteko arrisku txikiagoa du.

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4. artikulua –Kirol-monitorearen lanbidea– aldatzeko zuzenketa.

“7. Beharrezkoa izanen da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioa izatea nagusiki edo berariaz arreta berezia eskatzen duten pertsonen zuzendutako gorputz- eta kirol-ekintzetan jarduteko kirol-monitorearen lanbidean; arreta berezia eskatzen dutenen artean daude, esate baterako, adineko pertsonak (gorputz- eta kirol-ekintzak gauzatzeko zailtasun bereziak badauzkate), edota osasun-arazoak –kasu horretan, xede sanitariorik gabe– dituztenak. Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izanen dituzte eskudantziak, osasun arloko lanbideak antolatzeke legeriaren arabera”.

4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikulua –Prestatzaile fisikoa– aldatzeko zuzenketa:

“1. Prestatzaile fisikoaren lanbideak bide eman du gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoaren gaineko aholkularitza, plangintza, diseinua eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa egiteko, bai eta ekintza horiek garatu eta gauzatzeko ere, xedetzat izanik pertsonen egoera fisikoa eta koordinazio gaitasunak mantentzea, garatzea, hobetzea, optimizatzea eta berreskuratzea, haien bizikaltatea eta osasuna hobetzeko. Bai eta lesioak

eta patologiak prebenitzeko, eta haiek dituztenak berrezteko, berregokitzeko eta berrentrenatzeko ere, eta horretarako, kasuan kasuko ezaugarri eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintzak eta ariketa fisikoak egitea. Hartara, lankidetzan arituko dira sendagileekin eta osasun-arloko bes-telako profesionalekin, eta betiere gorde eginen dira zerbitzu ematek fisioterapeuten eskudantzia profesionalen baliabide edo agente fisiko berekien bidezko tratamendua ematek disfunczio edo des-gaitasun somatikoak dauzkaten pertsonen”.

“4. Gorputz hezitzailea edo kirol berregokitzailea den prestatzaile fisikoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetza bideratutako gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoaren lanaren prebentzioa, aholkularitza, plangintza, diseinua eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa.

b) Lesioak eta patologiak dauzkaten pertsonak, taldeak edo ekipoak berregokitzea, berrentrenatzea eta berreztea, lehiatzen badira edo ez; eta horretarako, beren ezaugarriekin eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintza eta ariketa fisikoak prestatzea, osasun arloko profesionalekin lankidetzan arituz eta errehabilitazio-zerbitzuak emateari buruzko 1. apartatuan ezarritako mugarekin.

c) Xedetzat bizi-kalitatea eta osasuna hobetza duten gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoen gaineko prestakuntza, aholkularitza, plangintza, garapena eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa, errehabilitazio-zerbitzuak emateari buruzko 1. apartatuan ezarritako mugarekin, arreta berezia eskatzen duten populazio hauekin: gorputz- eta kirol-ekintzetan jarduteko zailtasun bereziak dauzkaten adineko pertsonak eta patologiak eta osasun arazoak eta antzekoak dauzkaten pertsonak”.

5. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Prestatzaile fisikoaren lanbideak bide ematen du gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoen gaineko aholkularitza, plangintza, diseinua

eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa egiteko, bai eta ekintza horiek garatu eta gauzatzeko ere, xedetzat izanik pertsonen egoera fisikoa eta koordinazio gaitasunak mantentzea, garatzea, optimizatzea eta berreskuratzea, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko, bai eta lesioak eta patologiak prebenitzeko, eta horiek dituztenak berrezteko, berregokitzeko eta berrentrenatzeko ere, eta horretarako, kasuan kasuko ezaugarri eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintzak eta ariketa fisikoak egitea, osasun arloko profesionalekin lankidetzan arituz eta bakoitzaren esparru profesionalak errespetatuz”.

Zioak: Gure ustez, ezinbestekoa da profesionalen arteko lankidetzak, norberaren eskumen eta lan-esparrutik egiten baldin bada.

6. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

“1. Prestatzaile fisikoaren lanbideak bide ematen du gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoen gaineko aholkularitza, plangintza, diseinua eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa egiteko, bai eta ekintza horiek garatu eta gauzatzeko ere, xedetzat izanik pertsonen egoera fisikoa eta koordinazio gaitasunak mantentzea, garatzea, hobetzea, optimizatzea eta berreskuratzea, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko, bai eta, osasun-arloko profesionalekin lankidetzan arituz, lesioak eta patologiak prebenitzeko, eta haiek dituztenak berrezteko, berregokitzeko eta berrentrenatzeko ere, eta horretarako, kasuan kasuko ezaugarri eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintzak eta ariketa fisikoak egitea.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea; testu berria orekatuagoa da, eta osasun arloko lanbide-ekiko inbaditzailea dela irizteko arrisku txikiagoa du.

7. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. Gorputz hezitzailea edo kirol berregokitzailea den prestatzaile fisikoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetzerantz bideratutako gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoaren lanaren prebentzioa, aholkularitza, plangintza, diseinua eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa.

b) Lesioak eta patologia dauzkaten pertsonak, taldeak edo ekipoak berregokitzea, berrentrenatzea eta berreztea, lehiatzen badira edo ez; eta horretarako, beren ezaugarriekin eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintza eta ariketa fisikoak prestatzea, osasun arloko profesionalekin lankidetzan arituz eta 1. apartatuan adierazitako baldintzetan.

c) Xedetzat bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea duten gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoaren gaineko prestakuntza, aholkularitza, plangintza, garapena eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa, arreta berezia eskatzen duten pertsonekin edota gorputz- eta kirol-ekintzetan jardutekzailtasun bereziak dauzkatenekin eta osasun-patologia edo -arazoak dauzkatenekin, osasun arloko profesionalekin lankidetzan arituz eta 1. apartatuan adierazitako baldintzetan”.

Zioak: Gure ustez, ezinbestekoa da profesionalen arteko lankidetzaren, norberaren eskumen eta lan-esparrutik egiten baldin bada. Testua hobetzea.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikuluko 4.b) apartatua aldatzeko zuzenketa:

“b) Osasun-arloko profesionalekin lankidetzan arituz eta haien aholkuei jarraiki, lesioak eta patologia dauzkaten pertsonak, taldeak edo ekipoak berregokitzea, berrentrenatzea eta berreztea, lehiatzen badira edo ez; eta horretarako, beren ezaugarriekin eta beharrek bat datozen gorputz- eta kirol-ekintza eta ariketa fisikoak prestatzea”.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea; testu berria orekatuagoa da, eta osasun arloko lanbide-ekiko inbaditzailea dela irizteko arrisku txikiagoa du.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikuluko 4.c) apartatua aldatzeko zuzenketa:

“c) Xedetzat bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea duten gorputz- eta kirol-ekintzen eta ariketa fisikoaren gaineko prestakuntza, aholkularitza, plangintza, garapena eta ebaluazio tekniko eta zientifikoa, adina, ahalmen fisiko edo psikikoa, inguruabar sozialak edo osasuna direla-eta arreta berezia eskatzen duten populazio hauekin”.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea; testu berria orekatuagoa da, eta osasun arloko lanbide-ekiko inbaditzailea dela irizteko arrisku txikiagoa du.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hamazazpigarrena, gehitzeko zuzenketa:

“Nafarroan kirol arloko lanbideetan hasteari eta jarduteari buruzko Foru Legeak hezkuntza-legeria osatuko du, bai eta konpromisoa bat ere, kualifikazio-eskakizunak erraztuko dituen hezkuntza-eskaintza berrikusteko eta aldatzekoa. Hartara, Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, Jarduera Fisikoaren Familiako Lanbide Hezkuntzako eskaintza publikoa egiten du Iruñerrian, zeinak bermatuko baitu aukera berdintasunean eskuratu ahal izatea prestakuntza publikoa eta legean jasotako prestakuntza-premiak aseko baititu, langile kualifikatuak egon badaudela bermatzen lagunduz, jarduera fisikoaren eta kirolaren prestakuntza-eskaintza zehatz hau lurraldearen ikuspegitik antolatzen jarraitzeko konpromisoa hartuz administrazioak, Nafarroako gizartearen beharrezanez erantzunez, hala eskatzen baitu erantzukizun publikoaren printzipioak eta herritar guztiek berdintasunezko hezkuntza-eskaintza publiko bat izateko duten eskubideak”.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hemezortzigarrena, gehitzeko zuzenketa:

“1. Nafarroan kirol arloko lanbideetan hasteari eta jarduteari buruzko Foru Legearen araugintza-garapeneko ahalmen guztia baliatzea eta, zehazki, kirolaren bidez gizonezkoen eta emakumezkoen egiazko berdintasuna lortzea xede duten artikuluen, bermatze aldera gure foru erkidegoan emakume kirolari profesionalak hitzarmen kolektibo bidez kontratatzea.

2. Emakumeen eta emakumezkoen kirol talde profesionalen arteko hitzarmen kolektiboak eta kontratazioa lortu beharri buruzko kontzientziazioa eta babes-kanpainak bultzatzea Nafarroako Foru Komunitateko kirol talde profesionalen zuzendaritzetan.

3. Sustatzea Nafarroako Foru Administrazioak eta Nafarroako kirol federazioek eta taldeek –eta, bereziki, kirol talde profesionalak– gizonezko eta emakumezko kirolarien arteko soldata parekatzea eta, betiere, horiei exigitzea “gutxieneko soldata” berma diezaieten emakumezkoen taldeetako emakume profesionalak, gizonezkoen taldeetan gutxieneko soldata ezarria daukaten taldeetan.

4. Nafarroako Foru Komunitatean kirol-arloko eskumena duen departamentuaren dirulaguntzak emateko aginduetan, sistema proportzionalki justu baten bidez sustatzea kirol taldeek eta federazioek bultzatzea eta bermatzea kirol lehiaketen esparruan beren emakumezkoen taldeen eta kirolarien kontratazioa.

5. Sistema proportzionalki egoki baten bidez zigortzea Nafarroako Foru Komunitateak dirulaguntza publikoak ematea, foru erkidegoan kirolaren arloko eskumena duen departamentuaren dirulaguntzen aginduetan, beren gizonezkoen eta emakumezkoen taldeetan sexua dela-eta soldata-diskriminazioa dagoen kirol talde profesionalak”.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hemeretzigarrena, gehitzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Gobernuak erraztu egingen du, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera eta egoki iritzitako kanpo-aholkularitzarekin, aurretiazko txosten exekutibo bat egin dadin, zeinean baloratuko baita ikasleen eskari potentzialik ote dagoen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren eta Fisioterapiaren Zientzietako Gradu bikoitzarako, espainiar nahiz atzeritar ikasle onak erakartzeko eta Europako espazioan bultzatzeko eta mugit-

tzeko ahalmenik ote duen, bai eta Unibertsitatearen ikerkuntza-ahalmenak hobetzen edo sendotzen laguntzeko ahalmenik ote duen ere.

2. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren eta Fisioterapiaren Zientzietako Gradu bikoitzaren ikaskuntzak bermatzeko tresnak ezartzea, Europako hezkuntza-erakunde onenekin homologatzen ahal den kalitatearekin”.

13. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Lehen xedapen iragankorra. Lanbidean aritzea foru legeak eskatutako kualifikaziorik gabe.

1. Harik eta abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan aurreikusitako prozedura administratiiboak ezartzen diren arte, kiroleko profesionalak egiazta dezaten behar diren gaitasunak eskuratu dituztela laneko esperientziaren bitartez edo prestakuntza bide ez-formalen bitartez, lanbide horietarako gaituko dira erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, foru legea indarrean sartu aurretik jarduera profesional arautuak etengabe edo ez noizbehinka egiten zituztela frogatu eta konpromisoa hartzen dutenak eskatzeko aintzatesi dakizkiela laneko esperientziaren bitartez lortutako gaitasunak, erregelamenduz ezartzen diren epean eta baldintzetan. Erregelamenduzko garapen hori bi urteko epean onetsi beharko da gehieenez ere.

Nolanahi ere, gaikuntza hori mugatuko da erakunde berean edo beste batean zeukaten zeregin edo mailara, eta ez du balioko entrenatzaile moduan jarduteko dagokion kualifikazioa izatea eskatzen duten kirol-federazioetarako, erregelamenduz hala ezarri badute”.

14. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa.
Hauxe:

“Zortzigarren bis xedapen iragankorra.

Eginkizun berekiak esleiturik dauzkaten lanpostuen egungo izendapenak –2. artikuluan azaltzen direnak– mantentzen ahalko dira, eta hori ez

da eragozpen izanen beren eduki funtzionalaren arabera aplikatzekoak zaizkien kualifikazio profesionaleko eskakizunetara egokitzeko”.

Zioak: Sortu diren zalantzak ikusita, argitu egin nahi da Nafarroako administrazio publikoek, kirol entitateek edo kirol-zerbitzuetako enpresek lanpostuen egungo izendapenak mantentzen ahal dituztela, ez baitira lanpostu bat eta lanbide bat nahasi behar, bi kategoria juridiko ezberdin direlako. Lanpostuaren izendapena mantentzeko aukera hori ez da eragozpen foru lege hau derrigorrez aplikatzeko eta kasuko kualifikazio profesionalak exigitzeko, baldin eta lanpostuen eginkizunak bat badatoz araututako zenbait lanbidetako jardunarekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2019ko urtarrilaren 25eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Animalien edukitze arduratsua sustatzea, abandonuaren aurka borrokatuz, identifikazioa, adopzioa, esterilizazioa, hazkuntza eta ugalkortasunaren kontrola arautuz eta animalien populazioaren kontrola haien hilketan gauzatzen diren metodoen bidez ez egitea lortuz”.

Zioak: Gure ustez ezin da legean ezarri esterilizazioa, oro har, lagunduko denik.

2. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

4. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Basa faunako animaliak, ehizakitzat hartutako basa faunako espezieak, subespezieak eta populazioak”.

Zioak: Proposamena da 4. artikulua 2. apartatuan (Aplikatzekoak diren baztertzekoak) “Bere ingurune naturalean bizi den” hitzak kentzea, salbuespenean beren ingurune naturalean bizi ez diren basa espeziak sartu ahal izateko; esate baterako, hiri-inguruneetan bizi diren belartzak, beren ingurunean bizi ez arren basa animaliak baitira. Halaber, argitasun handiagoa lortze aldera, gure proposamena da salbuespenaren testua osatzea ehizakitzat hartzen diren espezie, subespezie eta basa populazioak berariaz aipatuz.

3. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

5. artikulua 17.2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

Merkataritza-xedea duten hazkuntza-zentroak edo haztegiak: lagun egiteko animalien titulartasun pribatuko zentroa, animaliak ugalketarako mantentzen dituen eta kumeak salmentara edo geroko lagapenera bideratzen dituen”.

Zioak: “Merkataritza-xedea duten” hitzak sartzan dira, 14. artikulua dela-eta proposatutako zuzenketarekin bat etortzeko; hartan, izan ere, salmenta- eta hazkuntza-establezimenduei buruzko zehaztapen bat egiten baita.

4. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,
ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

6. artikulua 6. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Behar diren neurriak hartzea animalien ugalketa kontrolgabea saihesteko, haiek esterilizatuz edo foru lege honetan araututakoarekin bateragarria den beste edozein kontrol-metodo erabiliz”.

Zioak: Gure ustez, ezin dira lagun egiteko animalien jabeak behartu haiek esterilizatzera; gomenda dakieke, eta dauzkan abantailak ikusarazi, nahigabeko umealdiak eta haiek dakartzaten betebeharrak saihesteari begira.

5. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikulua 6. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Behar diren neurriak hartzea animalien ugalketa kontrolgabea saihesteko, haiek esterilizatuz edo foru lege honetan araututakoarekin bateragarria den beste edozein kontrol-metodo erabiliz. Beste txakur edo katu batzuekin kontrol gabea kontaktua izan dezaket txakur eta katuek esterilizatuta egon beharko dute”.

Zioak: Artikuluaren jatorrizko testuan azken esaldian agertzen den “nahitaez” hitza kentzen da, zeren eta errepikapen hutsa baita, gauza bat egitera behartzen duen artikulua batean.

6. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikulua 9. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Behar diren neurriak hartzea saiheste aldera animaliak edukitzea edo haien zirkulazioa arrisku edo mehatxu bat izan daitezen, eragozpenak sor-

ditzaten edo kalteak eragin diezazkieten pertsonen, lagun egiteko edo produkzioko beste animalia batzuei edo gauzei, haiek funtsean ez erasokor eta ez indarkeriazko ez diren metodoen bidez heziz, eta jokabide-aldaketarako teknikak erabiliz albatari batek egoki jotzeagatik hala agintzen duenean. Bestetik, animaliek ezin izanen dute borroketan parte hartu. Hiri eremu publikoetan, txakurrak uhalez edo katez eraman beharko dira, eta ekidinen da haien eginkariekin bide eta eremu publikoak zikintzea”.

Zioak: “Lagun egiteko edo produkzioko” hitzak gehitzen dira, artikulua horren ehiza-jardueran izan dezakeen eraginari buruzko gaizkiulertuak saihesteari begira, azken hori lege araututa baitago.

7. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 10. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Laugarren xedapen gehigarrian –Animalia-eruditza debekatua– zerrendatzen diren animaliak –edo, kasua bada, lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimenduta dauden animalien zerrendan jasota ez dauden animaliak– edukitzea, erostea, saltzea edo salmentarako erakustea”.

Zioak: Apartatuaren testua aldatzen da, etorkizunean egin daitezkeen zerrenda positiboaren balizko ideia sartzeko eta indartzeko.

8. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 14. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Haiek heztea beren oldarkortasuna gara dezaten edo haiek borroketarako prestatzea, bai eta haiek trebatzea edo haiei lan eginaraztea halako moduz non haien osasuna edo ongizatea kalteko baita, beren indar edo gaitasun naturalak gaindiarazteagatik edo beharrezkoak ez diren lesio, min, sufrimendu edo larridura eragiten dieten bitarteko artifizialak erabiltzeagatik”.

Zioak: Testua aldatzen da nahasteak saihesteko eta argi goa izan dadin.

9. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 22. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Animaliei tiro egitea edo eraso egitea, suzko, airezko edo gas konprimituzko armekin, baleztekin, arkuekin, arma zuriekin edo haien ongizatea edo bizia arriskuan jartzen duen beste edozeinekin. Salbuetsita geratzen dira foru lege honetan araututako kasu bereziak, bai eta ehiza-espezieak ere baimendutako ehiza-jardueretan”.

Zioak: 26.3.j) artikulua dela-eta aurkeztutako zuzenketarekin koherenteak izatearren.

10. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

26. artikulua 7. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Animaliak edukitzea beren arduradunek haien gaineko gainbegiratze-kontrol egokia egin ezin duten tokietan”.

Zioak: 7. artikulua 5. apartatua erabilitako irizpide berari jarraitzen zaio.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 5. apartatuko 7. artikulua – “Debekuak”– aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“5. Denbora luzez haiek lotuta edo giltzapetuta edukitzea, sufrimenduak edo kalteak eragiteko moduko baldintzetan; edo haiek gizakiarengandik edo beste animalia batzuegandik etengabe isolatuta edukitzea, espezie taldekoiaren kasuan. Txakurrak ez dira modu iraunkorrean lotuta edukiko, halako moduz non loturak ez dien kalterik egiten eta mugitzeko, etzateko, elikatzeke, edateko eta, beharrezkoa bada, estalperatzeko aukera emanen dien”.

Zioak: Lan egiteko txakur askok eguna aske ematen dute, baina une jakin batzuetan lotuta egon behar dute. Bereziki gertatzen da hori artzain-txakurrekin: egunez abereak zaintzen egoten dira, baina gauz lotu egiten dira, batez ere gorabeherak saihesteko eta txakurraren beraren segurtasunerako.

12. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 6. apartatuko 7. artikulua – “Debekuak”– aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“6. Lagun egiteko animalia baten itxura aldatzeko edo sendaketakoak ez diren beste xede batzuk lortzeko ebakuntzak; bereziki, buztana moztea, belarriak moztea, ahots-kordak ebakitzea eta azkazalak edo hortzak eraztea. Sendaketarako ez diren ebakuntzetan, salbuespena izanen da albaitari batek haiek beharrezkotzat jotzea, dela albaitaritzamedikuntzako arazoengatik, dela animalia jakin baten onurarako edo, arazoi funtzionalak tarteko, ugalketa eragozteko. Hori adierazita utzi beharko da sendaketarako ez zen ebakuntza egin zuen albaitariaren txosten edo ziurtagiri baten bitartez”.

Zioak: Askoz hobeki iruditzen zaigu.

13. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua 18. apartatuko 7. artikulua – “Debekuak”– aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“18. Animaliak aparkatutako ibilgailuetan edukitzea bizitzeko toki moduan”.

Zioak: Testua egokiagoa iruditzen zaigu.

14. ZUZENKETA**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

13. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Honako hauek dira lagun egiteko animalien zentroek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, animalia baten edukitzaileari dagozkion bete-beharrez gainera, eta beren sailkapenaren arabera, erregelamenduz ezartzen direnak kendu gabe:”

Zioak: Argiago jasota utzi nahi da hazkuntzan eta salmentan diharduten lagun egiteko animalien zentroek lagun egiteko animalien edukitzaileek bete beharreko baldintzak errespetatu behar dituztela.

15. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“14. artikulua. Salmentarako eta hazkuntzarako establezimenduak, merkataritza-xedea dutenak:

1. Lagun egiteko animaliak hazten edo saltzen jardun eta merkataritza-xedea duten establezimenduek, aurreko artikuluan xedatutakoaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:”

Zioak: “Merkataritza-xedea” duten establezimenduen zehaztapena sartu nahi da, islatuta uzteko umealdiak edukitzeko debeku orokor eta erabatekoa dagoela.

16. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

14. artikulua 1. apartatuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“a) Ez haztea edo saltzea edukitzea debekatu dauden animaliak, laugarren xedapen gehigarriaren zerrendatzen direnak, edo, kasua bada, lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimenduta dauden animalien zerrendan jasota ez dauden animaliak.

Zioak: Apartatuaren testua aldatzen da, etorkizunean egin daitezkeen zerrenda positiboan balizko ideia sartzeko eta indartzeko.

17. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

14. artikulua 1.d) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Establezimenduko langileek erosleari aholkua eman beharko diote animalia mota egokienari buruz, haren ezaugarriari begiratuta, eta informatu beharko diote lagun egiteko animaliak adoptatzei buruz, erosleak eskatzen badu”.

Zioak: Ezin da establezimendu pribatu bat behartu bere lanaren beraren aurkakoa den adopzioa aholkatzera.

18. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua 15. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“5.000 biztanletik gorako udalei, eta lurraldearen gainerakoan Nafarroako Gobernuari, honako hauek dagozkie:”.

Zioak: Biztanle gutxi dituzten udalek ezin dute beren gain hartu eskumen horren kostua; gure ustez, Nafarroako Gobernuak hartu behar du bere gain.

19. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

15. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

Jabeak edo pertsona baimenduak titulatasuna behar bezala egiaztatu beharko du animalia berreskuratzeko, eta animaliak harrera-zentroak jasotzeak eta zentro horretan izandako egonaldiak sortutako gastu guztiak ordaindu beharko ditu hura berreskuratu baino lehen, behar izan diren albaitaritza-gastuak eta identifikazio-gastuak barne, animalia identifikatuta ez bazegoen. Kasuko lizentzia aurkeztuko du, baldin eta animalia potentzialki arriskutsu bat bada”.

Zioak: Prozedurari buruzko zuzenketa edo zehaztapen bat da, animalia berreskuratu edo gero kasuko zenbatekoa ez ordaintzeko balizko kasuak saihesteari begira.

20. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

16. artikulua 6. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Harrera-zentro batean dauden animaliek gaitortasun infekzioso-kutsakorrak edo parasito-gaitortasunak dauzkatenean, gizakiari edo animaliei transmititu ahal zaizkienak, eta gaitortasun horiek, zentroko albaitari erantzulearen iritziz, osasun publikorako edo animalien osasunerako arrisku bat izan daitezkeenean, ezin izanen dira adopzioan eman”.

Zioak: Legearen testuak zuzena izan behar du generoaren ikuspuntutik.

21. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

9. artikulua 16. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Erregelamenduz ezarriko da harrera-etxe batean gehienez ere zenbat animalia hartu ahal diren. Harrera-zentroak harrera-etxeen erregistro gaurkotu bat edukiko du animalien ongizatearen arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuaren departamentuaren eta kokatuta dauden udalerriri dagokion udalaren, udalez gaindiko erakundearen edo eskualdearen eskura”.

Zioak: Harrerako zentroak ez daude udal txer batean, zeina espazio fisiko baten moduan ulertu behar balitzateke, baizik eta udal txer batean; hori dela eta, testua zuzendu beharra dago zuzenketa aipatzen denaren harira. Halaber, lege proposamenaren apartatu askotan egin den bezala, “udala” terminoaren ordez, “udala, udalez gaindiko entitate edo eskualdea” jarri da

22. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

17. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Udalek, beren udal barrutian aske bizi diren katuen populazioa babestu eta kontrolatzeko neurri gisa, katu-koloniak ezarri beharko dituzte, katu horientzako balizko destino gisa, harrapaketa, esterilizazioaren, identifikazioaren eta askatzearen bidez. Koloniaren zaintzarako eta osasun kontrolerako eskuduna den udalaren izenean identifikatu dira animaliak”.

Zioak: Testuan “ahalko dituzte” esatea ez da aurrerapen erreal eta kualitatiboa aurreko legearekiko, zeren eta ez baitakar toki entitateentzako inongo betebeharrak edo erantzukizunik; eta katu-koloniaren aukera, zeina aho batez onarturik baitago arazoa kudeatzeko modu egokienaren gisara, aukera huts baten gisara planteatu du, norberaren borondatearen arabera. Aukera hori lehendik ere bazegoen, baina errealitatea da katuen arazoa handitzen joan dela urteen poderioz, eta harekin amaitzeko modu eraginkorra eta praktikoa dela, hain zuzen, katu-kolonia; hori dela eta, toki entitateentzako betebeharrak bat izan beharko litzateke. Beste aukera izanen litzateke katuen presentzia kudeatzea haiek harapatuz, baina horretarako toki entitateen ahalegina ere beharko litzateke, eta ahalegin hori agian koloniak kudeatzea baino handiagoa izanen litzateke, baino emaitza eskasagoarekin; gainera, zailagoa izanen litzateke, katuen jokabidea bera dela eta, eta haiek harapatu ondoren eman beharreko tratuak ere zailtasunak badituelako.

23. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,
ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

19. artikulua 2.c) apartatua kentzen da.

Xede nagusi gisa animalien babesa eta defentsa edukitzea.

Zioak: Gure ustez beharrezkoa da animalien babesa eta defentsa xede nagusitzat edukitzea,

entitate laguntzailea izan ahal izateko. Erabat murrizten du aukera hori animaliekin lan egiten duten eta haien babeseta eta defentsa sustatzeko jarduerak egiten dituzten elkarte eta kolektiboen-tzat.

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

2. artikulua 21. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Entitate laguntzaile deklaratu dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteak, Ehiza Federazioa eta laguntzaile deklaratuak ehiza-elkarteak, eta Nafarroako Albaitarien Elkargoa oinarritzeko tresnak izanen dira foru lege honetan ezarritakoaren zabalkunde- eta informazio-lanetan”.

Zioak: Bai Ehiza Federazioak, bai ehiza-elkar-teek aukera dute beren ikuspegi garrantzitsua emateko ehiza-animaien babesari eta defentsari buruz.

25. ZUZENKETA

UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA PSN TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuan, 22. artikulua 2.1. apartatuaren d), f) eta g) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen dute aurrerantzean:

2.1. El departamento competente en materia de sanidad, identificación y bienestar animal, deberá:

“d) Autorizar y registrar los centros de animales de compañía como núcleos zoológicos. Así como establecer los requisitos higiénicos sanitarios mínimos que deben cumplir, se incluyen las colonias felinas”.

“f) Otorgar la autorización administrativa pertinente para la realización de espectáculos, ferias, exposiciones, concursos, filmaciones, etc., con animales”.

“g) Elaborar protocolos para el sacrificio o eutanasia de los animales”.

Zioak: “Beharko du” aditz-forma erabiltzeak derrigor dakar apartatuaren puntuaren enuntziatu bakoitzaren aditz-forma aldatzea; hori dela eta, gaztelaniazko testuan “La autorización y el registro”, “La autorización administrativa” eta “La elaboración” hitzen ordez, honako hauek erabili behar dira: “Autorizar y registrar”, “Otorgar la autorización” eta “Elaborar”

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 22. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“5.000 biztanletik gorako udalek, eta lurraldearen gainerakoan Nafarroako Gobernuak, honako hauek egin beharko dituzte:”

Zioak: Biztanle gutxi dituzten udalek ezin dute beren gain hartu eskumen horren kostua; gure ustez, Nafarroako Gobernuak hartu behar du bere gain.

27. ZUZENKETA

UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA PSN TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

26. artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“a) Edozein espezieetako animaliak nahikoa edo egokia ez den modu batez edo debekatuta dauden elikagaiekin elikatuta edukitzea”.

Zioak: “Baimenduta ez dauden” hitzen ordez “debekeatuta dauden” hitzak erabiltzea proposatzen da, 7. artikulua 4. apartatuaren testuari hobeki egokitzen zaizkiolako.

28. ZUZENKETA

UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA PSN TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

26. artikulua 2. apartatuaren d) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“d) Lagun egiteko animaliak ez txertatzea edo agintari eskudunek nahitaezkoztat deklaraturako tratamenduak ez egitea, bai eta haiek ez esterilizatzea ere, 16.4 artikuluan ezarritako konpromisoa urratuz, edo agintari eskudunek erabakitzen dutenean”.

Zioak: Testua aldatzen da hobeki zedarrizkeo norengan izanen lukeen eragina animalia ez esterilizatzeagatiko zehapenak.

29. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

26. artikulua 3. apartatuaren c) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“c) Edozein espezieetako animaliak erabiltzea ikuskizunetan, jai herrikoietan, borroketan, animalien arteko aurrez aurrekoetan, beste animalia batzuen harrapaketan, erasoetan, simulatuta ez dauden eszenen filmazioan edo ankerkeria edo tratu txarra inplikatzeko duten beste jardueren batzuetan, edo animaliei sufrimenduak, naturaren aurkako tratamendu edo tratamendu laidogarriak edo heriotza eragin ahal dizkietenetan, 7.13 artikuluan araututakoari jarraituz”.

Zioak: 7.13 artikuluari buruzko aipamenak balio du aldatutako apartatua argitzeko eta hobeki zehazteko, bai eta dauzkan salbuespenak ere, erreferentziako artikulua azken esaldian jaso direnak.

30. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

26. artikulua 3. apartatuaren f) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“f) Galdutako edo desagertutako lagun egiteko animaliak ez berreskuratzea horretarako ezarritako epean, 15.3 artikuluan araututakoari jarraituz”.

Zioak: 15.3 artikulua aipamena da aldatutako apartatuaren norainokoa argitu eta hobeto zehazteko eta animalia berreskuratzekeo epea zein den gogorarazteko.

31. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

26. artikulua 3. apartatuaren j) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“j) Edozein espezieetako animaliei nahita tiro egitea, foru lege honetan jasotako kasuetan izan ezik eta baimendutako ehiza-jardueretan ehizakiei izan ezik”.

Zioak: Zehaztu ezean, uler daiteke ezin zaiela tiro egin basurdea eta fisaia bezalako animaliei. Azken hori ekoizpeneko ere izan daiteke, batzuetan ehiza-barrutiak birpopulatzeko hazten dira.

32. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

26. artikulua 3. apartatuaren l) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“l) Espainiako Estatuan indarrean diren berretsitako nazioarteko itun eta hitzarmenen bidez babestutako edo desagertzeko arriskuan daudela deklaraturako espezieen kasuan, bai eta foru lege honetan berriaz debekatuta animalien kasuan ere, debekatuta dago haien ale, arrautza, kume edo beste edozein atal edo produktu merkaturatzea, saltzea, edukitzea, erakustea eta naturalizatzea, edo, kasua bada, animalien zerrendetan jaso ez animaliak, baldin eta haiek lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimenduta badago”.

Zioak: Apartatuaren testua aldatzen da etorkizuneari egin daitezkeen balizko zerrenda positiboen ideia txertatu eta indartzeko.

33. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

27. artikulua –“Zehapenak” aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Honako hauek dira foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik aplikatuko diren zehapenak:

a) Arau-hauste arinengatik, 200 eta 1.000 euro bitarteko isuna. Arau-hauslearengan intenzionalitatearik aurkitzen ez den arau-hauste arinen kasuan, baldin eta arau-hausle horri bide administratiboan aurreko hiru urteetan foru lege honetan aurreikusitakoetatik beste zehapenik ezarri ez bazaio, zehapena ohartarazpen bat izan daiteke, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen zehapen osagarriak ezertan kendu gabe.

b) Arau-hauste astunengatik, 1.001 eta 5.000 euro bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunengatik, 5.001 eta 50.000 euro bitarteko isuna”.

Zioak: Hasierako testuan aurreikusitako zehapenak gehiegizkoak iruditzen zaizkigu.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“a) Arau-hauste arinengatik, 750 euro bitarteko isuna. Arau-hauslearengan intenzionalitatearik aurkitzen ez den arau-hauste arinen kasuan, baldin eta arau-hausle horri bide administratiboan aurreko hiru urteetan foru lege honetan aurreikusitakoetatik beste zehapenik ezarri ez bazaio, zehapena ohartarazpen bat izan daiteke, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen zehapen osagarriak ezertan kendu gabe.

Zioak: Zehapen arinak kopuru egokiagoetara doitzea eta udalei zenbatekoa baloratzeko aukera, ekintzaren proportzionaltasunen eta eremuko eros-ahalmenaren arabera.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua b) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“b) Arau-hauste astunengatik, 751 eta 3.000 euro bitarteko isuna”.

Zioak: Zehapen astunak kopuru egokiagoetara doitzea eta udalei zenbatekoa baloratzeko aukera, ekintzaren proportzionaltasunen eta eremuko eros-ahalmenaren arabera.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua c) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“c) Arau-hauste oso astunengatik, 3.001 eta 30.000 euro bitarteko isuna”.

Zioak: Zehapen oso astunak kopuru egokiagoetara doitzea eta udalei zenbatekoa baloratzeko aukera, ekintzaren proportzionaltasunen eta eremuko eros-ahalmenaren arabera.

37. ZUZENKETA

UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA PSN TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

28. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“b) Aldi baterako debekua edo ezgaitzea foru lege honek araututako jardueretan aritzeko, gehienez ere bi urtez arau-hauste astunen kasuan, lau urtez arau-hauste oso astunen kasuan, eta betiko ezgaitzea kasu oso larrietan eta berrerortze kasuetan, edota txosten psikotekniko batek jabea ezgaitzeko erabaki judizialari abala ematen dionean”.

Zioak: Kasuak zabaltzea, gehitutako testuan jasotako aukera aintzat hartzeko; izan ere, halakoa gerta daitezke eta beharrezkoa da aurreikus-tea.

38. ZUZENKETA

UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA PSN TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

29. artikulua 1. puntuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“b) Animalien babesari, animalien sanitatari, osasun publikoari edo ingurumenari eragindako kaltea edo arriskua, edo ukitutako animalia-kopurua”.

Zioak: Ukitutako animalien aipamena gehitzea proposatzen da argitzeko zehapenak ezin direla modu berean ezarri zehaturiko jarduketek animalia kopuru oso desberdinengan izan badute eragina; hau da, ez da gauza bera, esaterako, zehapen bat ezartzea txakur bati tratu txarra emateagatik edo berrogeita hamar txakurri tratu txarra emateagatik.

39. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

31. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Foru lege honetan araututakoaren aurkako arau-hauste administratiboa delitua izan badaiteke, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, espediente irekita, jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dizkio egitate horiek.

Zioak: “Falta” termino kendu da apartatu hone-tatik, kontzeptu hori ordenamendu juridikotik des-agertu egin baita legezko figura gisa.

40. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

31. artikulua 3. puntua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Behin ere ezin ezarriko da zehapen administrazioaren prozesu penal batean kondena eragin duten gertaerengatik, bai ordea kondena eragin ez duten beste gertaera batzuegatik”.

Zioak: Proposatzen da 3. puntua jasotzea, zehazte aldera nola jokatu delitutzat hartzen diren arau-hauste oso astunen kasuan.

41. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua 32. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Lagun egiteko animaliei buruzko arau-hauste-agatik zehapen-espedienteak instruitu eta ebaz-

teko eskumena arau-hauste egin den udalerriri dagokio, 5000 biztanletik gorakoa bada; bestela, Nafarroako Gobernuari dagokio aipatu zehapen-espedienteak instruitu eta ebaztea. Edozein kasutan ere, Nafarroako Gobernuaren ikuskaritzak edo udalerrienak, halakorik baldin badu, txostena eginen du alde aurretik. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organoek subsidiarioki baliatu ahalko dute zehapen-ahalmena artikulua honetan ezarritako moduan”.

Zioak: Biztanle gutxi dituzten udalek ezin dute beren gain hartu eskumen horren kostua; gure ustez, Nafarroako Gobernuak hartu behar du bere gain.

42. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

2. artikulua 32. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Baldin eta 5.000 biztanletik gorako udalak bere eskumena den zehapen-ahalmena baliatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak falta baditu, ahalmen hori udal hori sarturik dagoen udalez gaindiko entitateak, mankomunitateak edo eskualdeak baliatu ahalko ditu edo, bestela, Nafarroako Gobernuko organo eskuduna, ahalmen hori berariaz onartuta eta kasuko Udalak horri buruzko eskaera arrazoiduna egin ondoren”.

Zioak: Gainerako udaletan, zehapen-ahalmena Nafarroako Gobernuari dagokio.

43. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3. artikulua 32. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Nafarroako Gobernuko arloko departamentu eskudunak arau-hauste bat egin dela jakiten duenean, kokatuta dagoen toki entitateari emanen dio horren berri, eskuduna bada, kasuko zehapen-espediente hasteko borondatea berariaz adieraz dezan. Hilabeteko epean erantzuten ez badu edo aukera horri berariaz uko egiten badiu, zehapen-eskumena departamentu horrek baliatuko du”.

Zioak: Bost mila biztanletik gorako udalerriei jakinarazi besterik ez du egin behar, horiek baitira eskumendunak.

44. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, zazpigarrena, gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Lagun egiteko animalia bat duten emakumeak, genero indarkeriarekin loturiko arrazoiak tarteko, tratu txarrak pairatu dituzten emakumeak artatzeko larrialdizentro batean edo harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sareko baliabideren batean sartzen badira, beren animaliekin egon ahalko dira, sarbidea edo bertan egotea mugatu gabe, baliabide horretako egonaldiak irauten duen bitartean”.

Zioak: Genero indarkeriaren biktimentzako eta beren seme-alabentzako harrerako baliabideen araudiak ebaluatzen eta egokitzen ari dira, besteak beste, erabiltzaileen aniztasunera. Badira emakumeak eta haurrak genero indarkeriagatik beren etxetik atera behar izan arte lagun egiteko animaliekin bizi zirenak. Garrantzitsua da aintzat hartzea animalien babesaren irizpidea lagun egiteko animalia hauen kasuan; izan ere, ohikoa da tratu txarren emaileak kalte egitea animaliar txarren biktima den emakumeari min handiagoa emateko. Hala, animalia emakumearen edo familiaren gaineko mende-kuaren edo kontrolaren xede bilakatzen da.

Harrerako baliabideek, oinarrizko beharrianak asetzeaz gain, beren etxeetatik premiaz atera behar izaten duten emakume eta haurren beharrian emozionalak ere kontuan hartu behar dituzte, bai eta lagun egiteko animaliarekiko lotura ere.

45. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren xedapen iragankorra. Lagun egiteko animaliak identifikatzea eta txertatzea.

Lagun egiteko animalien identifikazioarekin eta txertatzearekin zerikusia duten alderdien erregelamenduzko garapena egin bitartean, indarrean mantenduko dira alderdi horiek arautzen dituzten

arauak; hau da, Nafarroako Foru Komunitatean txakurren identifikazioa arautzen duen azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretua garatzen duena eta Osasuneko kontseilariaren 1994ko irailaren 19ko Foru Agindua, errabiaren aurkako txertatzea arautzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatean txakurren identifikazioa arautzen duen azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretua garatzen duena.

Zioak: Jasota utzi nahi da txakurren identifikazio eta txertatzearen gaineko erregelamendua onetsi arte egungo araudiak indarrean jarraituko duela.

46. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Indarrrik gabe uzten dira:

1. Maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, animalien babesari buruzkoa.

2. Foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten edo harekin kontraesanean dauden edo bateraezinak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Zioak: Xedapen honetatik kentzen dira 2. eta 3. puntuak, bertan aipatzen diren dekretuak automatikoki indargabetuko baitira 7/1994 Foru Legearen indargabetzearekin. Halaber, 4. eta 5. puntuak kentzen dira, txakurren identifikazio eta txertatzearen gaineko erregelamendua onetsi arte egungo araudiak indarrean jarraitu behar duelako. Bestalde, bigarren puntu bat gehitzen da, lege testuetan ohikoa den edukia jasotzen duena.

47. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita “Udalak” terminoa “Udalak, udalez gaindiko entitateak edo eskualdeak” terminoarengatik, edo, kasua bada, “Udala” terminoa “Udala, udalez gaindiko entitatea edo eskualdea” terminoarengatik, lege proposamenaren paragrafo, artikulua edo apartatu hauetan:

– Hitzaurrea: IX. tituluaren edukia azaltzen duen paragrafoa (hitzaurreko 33. paragrafoa).

- 5. artikulua, 19. apartatua.
- 8. artikulua, 2. eta 6. apartatuak.
- 16. artikulua, 1. apartatua.
- 15. artikulua, 1. apartatua.
- 16. artikulua, 1. eta 9. apartatuak.
- 17. artikulua, 1. 2. eta 3. apartatuak.
- 21. artikulua, 1. apartatua.
- 22. artikulua, 1. eta 2.1.a) apartatuak.
- 23. artikulua, 1. apartatua.
- 25. artikulua, 7. apartatua.
- 26. artikulua, 1.e) apartatua.
- 32. artikulua, 2. apartatua (hiru aldiz).
- Seigarren xedapen gehigarria.
- Hirugarren xedapen iragankorra.

Zioak: Testu berriak hobeto jasotzen du Toki Administrazioaren errealitatea eta egitura, eta lagun egiteko animalien babesaren kudeaketa partekatua egiteko aukera indartzen du.

48. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gaztelaniazko testuan, legearen atarikoaren 3. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Entre los considerandos del Convenio Europeo se reconoce que el ser humano tiene la obligación moral de respetar a todas las criaturas vivas y tener presentes las especiales relaciones existentes entre el ser humano y los animales de compañía a los que se les reconoce la importancia de su contribución a la calidad de vida y valor para la sociedad. Así mismo reconoce que las condiciones en la tenencia de animales de compañía no siempre permiten promover su salud y bienestar, así como que las actitudes hacia los mismos varían considerablemente, a veces por inconsciencia o falta de conocimiento, considerando que una actitud y unas prácticas comunes básicas que determinen una conducta responsable por parte de las personas propietarias de animales de compañía constituyen un objetivo no solo deseable sino también realista”.

Zioak: Legearen testuak zuzena izan behar du generoaren ikuspuntutik.

49. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoari 4. paragrafoa gehitzeko zuzenketa; honako hau da testua:

«Bestalde, Europar Batasunaren Lisboako Tratutuko 13. artikulua esaten du animaliak “sentient beings” edo “sentitzen duten izakiak” direla, hau da, sentitzeko gai diren izaki bizidunak, eta Europar Batasuneko kide diren herrialde guztiek horren arabera egokitu behar dute beren legedia».

Zioak: Animaliak “sentitzen duten izakiak” direla aitortzea aurrerapen bat da aurreko garaian zegoen ikuspegiarekiko; ideia hori nazioarteko hainbat tratatu edo hitzarmenetan jaso da, eta 2009an Europar Batasuneko Lisboako Tratatuan sartu zen; horrek esan nahi du estatu kideak ere behartzen dituela eta, horrenbestez, egokia da hura foru legedian ere sartzea, gutxienez ere foru legearen atarikoan, ideiak daukan garrantzia aitortzeko modu gisa.

50. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren 8. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Egiazko aldaketa bat dago jarreretan eta animaliei ematen zaien babes praktikoan, baina ez da nahikoa. Egiazki eraginkorra izateko, legeriak beharrezko ditu bai kezkatzen den gizarte bateko herritarren babesa, bai eta legezko aplikazio egokia ere. Hezkuntzak hobekuntza iraunkorrak ekar ditzake, baina legeriak segurtasun-sarea ematen du animaliekiko ankerkeria eta gehiegikeria saihesteko”.

Zioak: Testu berri honekin irudi positiboago bat eman nahi da. Lagun egiteko animaliak dituzten pertsona gehienek tratatu egokia ematen diete, eta uste dugu legean horrela geratu behar dela islaturik.

51. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gaztelaniazko testuan, legearen atarikoaren 11. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“En relación con los animales de compañía, entre los que se incluye principalmente a perros y gatos, no hay normativa nacional para su protección y bienestar. Esta situación hace que las comunidades autónomas hayan legislado en sus territorios normativa referida a la protección de los animales de compañía. Por esa razón se ha creído más oportuno limitar el ámbito de actuación de la nueva Ley Foral a los animales de compañía de Navarra, lo que permitirá enfatizar la protección de estos animales que no tienen un marco legal específico de ámbito comunitario o nacional”.

Zioak: Paragrafoa hobeki idaztea.

52. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gaztelaniazko testuan, legearen atarikoaren 12. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Después de muchos años de la entrada en vigor de la Ley Foral de protección de los animales, aún se dan situaciones no deseadas, principalmente, de maltrato y abandono de perros y gatos. El abandono es todavía en nuestro territorio un importante problema de bienestar animal”.

Zioak: Paragrafoa hobeki idaztea. Uste dugu nahikoa hobetu dela animaliekiko tratatu txarraren eta abarren arloan, eta gaztelaniaz “siguen dando” jartzen badugu, badirudi ez dugula aurrera egin eta, horrenbestez, ikuspegi negatiboa ematen dugu.

53. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren 12. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Agerian geratu da esterilizazioa, identifikazioa eta adopzioa direla lagun egiteko animalien abandonuari aurrea hartzeko eta haren inpaktua minimizatzen hiru estrategia garrantzitsuenak, eta edukitze arduratsuen kontzeptu zabalagoaren parte dira”.

Zioak: Lege honen helburuari hobeki egokitzen zaion testu bat da.

54. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren 15. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Gaur egun, jabeek jokabide oker eta desegoki batzuk izaten dituzte lagun egiteko animaliekiko. Maiz gertatzen dira animalien ezaugarri etologikoekiko eta jokabide-ezaugarriekiko proportzionalak ez diren zainketa eta arretak, animaliei sufrimendu edo kalterik eragiteko asmorik gabe gauzatuak baina zuzenak ez direnak eta, gainera, animalien ongizatea bermatzen ez dutenak. Halako zainketak gertatzen dira gizakien eta animalien ezaugarri fisiologikoak eta jokabide etologikoak parekotzat jotzeko gero eta maizago gertatzen den sentimendu batengatik”.

Zioak: Paragrafoa hobeki idaztea.

55. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gaztelaniazko testuan, legearen atarikoaren 16. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Debido a la tendencia actual de proteccionismo hacia los animales para acabar con las situa-

ciones de maltrato, descuido, abandono y desprotección hacia ellos y sobre todo a la cada vez más creciente preocupación e interés del hombre por el respeto hacia los animales, es necesario y justificado regular una nueva ley foral”.

Zioak: Paragrafoa hobeki idaztea.

56. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gaztelaniazko testuan, legearen atarikoaren 16. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Debido a la tendencia actual de proteccionismo hacia los animales para acabar con situaciones de maltrato, descuido, abandono y desprotección hacia ellos y sobre todo a la cada vez más creciente preocupación e interés del ser humano por el respeto hacia los animales, es necesario y justificado regular una nueva ley foral”.

Zioak: Legearen testuak zuzena izan behar du generoaren ikuspuntutik.

57. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren 18. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Foru lege honetan, animalien edukitze ardura tsua indartzeko eta sustatzeko neurri egokiak arautzen dira, eta horri begira, zabalkundeko eta prestakuntzako ekintzak garatuko dira, animalien zaintza eta babesa sustatu eta ongizatea bermatzeko, animalia-erosketa konpultsiboa ekiditeko, gure animalien ugalketa kontrolatzearen garrantziari buruz kontzientziazteko, nahi gabeko umeal-

diak edo sabelaldiak saihesteari begira, halakoek abandonua ekarri ohi dutelako”.

Zioak: Paragrafoa hobeki idaztea.

58. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren azken hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Zazpi xedapen gehigarriren bidez, lagun egiteko animaliatzat hartzen ez diren animalien babesari estaldura egokia ematearren foru legean integratu beharrekoak diren alderdi batzuk ezartzen dira, haiei buruzko arauetan aurreikusitako gabeko alderdiei dagokienez, eta generoko indarkeriaren biktima diren emakumeek, laguntza gisa, lagun egiteko animaliak nola erabili erregulatzearren”.

Zioak: Zuzenketa baten bidez xedapen gehigarri bat gehitu denez, atarikoan xedapen gehigarriren kopuruari buruz egiten den aipamena ere aldatu beharra dago.

59. ZUZENKETA

**UPN, GEROA BAI, EH-BN, P-AD-OB ETA
PSN TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Legearen atarikoaren azken aurreko paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Lau xedapen iragankorren bidez, foru legearen aplikazio eraginkorrerako behar den egokitzapena egiten da, aurreko foru legea indarririk gabe uzten baita”.

Zioak: Zuzenketa baten bidez xedapen iragankor bat gehitu denez, atarikoan xedapen iragankorren kopuruari buruz egiten den aipamena ere aldatu beharra dago.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen kidegoetan sartzeko deialdietako merezimendu-lehiaketei dagokienez Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikulua garatzen duena.

IZAPIDETZEKO EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Batzorde sustatzaile batek foru lege proposamen bat aurkeztu zuen, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen kidegoetan sartzeko deialdietako merezimendu-lehiaketei dagokienez Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikulua garatzen duena. Nafarroako Gobernuak aipatu foru lege proposamena aintzat hartzeari buruz 2019ko martxoaren 6an harturiko bere erabakiaren ziurtagiria igorri dio Legebiltzarrari, eta adierazi du ez dagoela ados aipatu foru lege proposamena izapidetzearekin, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 5. artikuluan araturik dagoen sartzeko prozedurekin ez datorrelako bat.

Herriaren Legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legeko 6. artikularekin bat, hona ERABAKIA:

1. Honako foru lege proposamen hau izapidetzeko ez onartzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen kidegoetan sartzeko deialdietako merezimendu-lehiaketei dagokienez Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikulua garatzen duena". Foru lege proposamena Pedro Nicolás Herrero Hontoria jauna buru duen Batzorde Sustatzaile batek aurkeztu zuen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan-eskaintza publikoan atera daitekeen lanpostuen kopurua mugatzen duen ordezkate-tasa ken dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita lan-eskaintza publikoan atera daitekeen lanpostuen kopurua mugatzen duen ordezkate-tasa ken dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeak urtez urte jasotzen du zein den ordezkate-tasaren muga Estatuko administrazioek lan-eskaintza publikoetan atera ditzaketen lanpostuen kopuruari dagokionez.

Muga horien eta urtez urte gertatzen diren erretiroen eraginez, behin-behinekotasun handia sortzen ari da administrazio horien plantilletan,

hain handia non ehunekoak eskandalagarriak baitira eta zerbitzu publikoak ematen dituztenen lan-baldintzak okertu egiten baitira.

Zenbait sektoretan –adibidez, osasungintzan–, laneko ziurgabetasun-egoeraren eta profesionalen eskasiaren eraginez, sistema arriskuan dago, profesionalak beste herrialde batzuetara emigrazten baitute han egonkortasun handiago izanen dutelakoan.

Gauzak horrela, Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2016ko urriaren 27an, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari eskatu baitzion antolamendutik ken zitzan ordezkate-tasak ezartzen dituen mugak, Nafarroako Foru Administrazioiko plantilla organikoari egonkortasuna ematen dien lan-eskaintza publiko berezi bat deitu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 23an, ordezkate-tasa ken zedin eskatu zuen. Gobernuaren ustez, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak aldi baterako enpleguari buruz berrikitan emandako epai batek talka egiten du aipatutako ordezkate-tasa horrekin, mugatu egiten duelako enplegu finkoa sendotzea. Epai horren arabera, ez dago justifikatuta aldi zehatz baterako lan-harremanak edo kontratuak berritzea berez behin-behinekoak ez, baizik eta iraunkorrak eta egonkorak diren beharriari aurre egiteko.

2017ko martxoan, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak berriz eskatu zion Gobernu zentralari ordezkate-tasak ezarritako muga ken zezan, Foru Administrazioaren plantillari egonkortasuna emanen zion berriazko lan-eskaintza publiko baten deialdia egin ahal izateko.

2017ko apirilean, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak osasun-arloko ministro eskudunari eskatu zion ordezkatzeta-tasa ken zezan, Estatuko Administrazio Publiko guztietako sektore publikoko osasun-arloko profesionalen egoera kezkarria aintzat hartuta.

Asko dira Estatuko Gobernuari eskabideak igorri dizkieten entitateak (parlamentu autonomikoak, gobernu autonomikoak, toki entitateak, sindikatuak nahiz bestelako erakundeak), aurrekontuen proiektuetatik muga horiek ken ditzan.

Halere, egoera azaldutakoa bada ere eta eskaera horiek aurkeztu badira ere, Estatuko gobernuak ez dituzte neurri horiek kendu azken urteotako Estatuko lege proiektuetatik, eta hortaz zoritarreko egoera bidegabe hori –Administrazio-ko behin-behinekotasun egoera, alegia– mantendu da.

Jakina denez, Nafarroan ordezkatzeta-tasa aplikatzeak berekin ekarri du Foru Administrazioak azken urteotan lan-eskaintza publikorik ez onestea, edo egin direnetan lanpostu oso gutxi eskaintzea. Horren ondorioz, igo egin da Administrazioaren zerbitzuko langileen behin-behinekotasunaren indizea, zeina handiena baita osasunaren, hezkuntzaren eta justiziaren arloetan.

Gauzak horrela, Kontuen Ganberako lehendakariak egoera kezkarria dela adierazi zuen legebiltzar honetan 2017ko Kontu Orokorrei buruzko txostena aurkezte aldera egindako agerraldian. Agerraldi hartan adierazi zuenez, “desfase oso negatiboa” dago langile finkoen behin betiko baje eta alden artean, eta behin-behinekotasuna “areagotzen ari da”. Esan zuenez, jaitsi egin da langile finkoen kopurua, behin betiko bajak ez dira ordeztu eta aldi baterako langileen bidez betetzen ari dira egiturazko beharrezko iraunkorrak; hartara, Foru Administrazioan behin-behinekotasunaren indizea gehiegizkoa eta kezkarria da. 2017an, % 45ekoa zen.

Badira zenbait azterlan laneko behin-behinekotasuna osasun publikoko azaro gisa ikusten dutenak. Laneko behin-behinekotasun egoera lotuta dago osasun ona ez izatearen arriskua % 40 handiagoa izatearekin.

Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko azken legeetan (2017koan eta 2018koan) administrazioen autoantolakuntzarako askatasuna mugatzen duen neurri bat jasotzen da, lan-araudiaren aurka-

ko oinarriak dauzkana. Honako hau, hain zuzen ere: lan-kontratudunak sektore publikoan sartzea mugatzen da zerbitzu eta obra publikoaren kudeaketa-eredua zeharkakoa izatek zuzeneko izate-aldatzen den kasuetan. Neurri horren bidez, nabarmen mugatzen da administrazioek zerbitzu publikoaren birmunizipalizazioak edo internalizazioak deiturikoei dagokienez hartutako erabakiak betetzean. Azken finean, zerbitzu publikoak pribatizatzeak arazorik ikusten ez duen eredu baten aldeko apustua egiten da, eta ahal den guztian mugatzen da horien prestazioa berriz ere publikoa izatearen aukera.

Azkenik, gogoratu beharra dago Konstituzio Auzitegiak 2018ko urriaren 31ko 122/2018 epaian ebatzi zuela 4710-2017 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua, zeinaren bidez Estatuko 2017ko aurrekontuei buruzko lege orokorreko neurrien konstituzio-kontrakotasuna eta ezdeustasuna deklaratu baitzituen –autoantolakuntzarako mugak ezartzen ziren bertan–, aurrekontu-arau baten berezko gaia ez zirela iritzita. Konstituzio-kontrakotasuneko deklarazio hori gorabehera, neurri horiek 2018rako arauan ere jaso ziren, halako moduan non muga hori aplikatzen jarraitu izan baita.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak hurrengo hauteskundeetatik aterako den Espainiako Gobernu berria premiatzen du lan-eskaintza publikoan atera daitezkeen lanpostuen kopurua mugatzen duen ordezkatzeta-tasa ken dezan, murrizte aldera, hartara, administrazio publikoetako behin-behinekotasuna eta hobetze aldera zerbitzu publikoak ematen dituzten profesionalen egonkortasuna.

2. Nafarroako Parlamentuak hurrengo hauteskundeetatik aterako den Espainiako Gobernu berria premiatzen du administrazio publikoaren autoantolakuntza-ahalmena eragozten edo mugatzen duten neurriak ken ditzan, bereziki zerbitzu publikoaren internalizazio kasuan.

3. Erabaki hau Ministroen Kontseiluari igorriko zaio.

Iruñean, 2019ko martxoaren 5ean

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Adolfo Araiz Flamarique, Tere Sáez Barrao eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkartearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

2018an % 9,9 igo da lan-istripuen kopurua Nafarroan. Onartezina da hori, eta erantzun urgentea eskatzen du Nafarroako Gobernuaren, enpresaburuen eta sindikatuen aldetik.

Enpresaburuak dira laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzearen arduradun

nagusiak; hortaz, datu hauek lehenik eta behin enpresaburuen erantzukizunari eragiten diote.

Halaber, laneko istripuen kopuruari buruzko datuetan berebiziko eragina dauka langileriak pairatzen duen lan-prekarietate handiak, zeina nabarmen okertu baita PPre lan-erreforma (Pedro Sánchezek oraindik ere indargabetu ez duena) onetsi zenez geroztik.

Baina erantzun urgentea eskatzen du Nafarroako Gobernuaren, enpresaburuen eta sindikatuen aldetik ere. Nafarroan Estatuan baino gehiago igo da lan-istripuen kopurua.

Azken urteotan lan-istripuen kopurua igo izanak –2018an, % 9,9– argi eta garbi erakusten du orain arte egindakoa ez dela aski.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan dauden sindikatuekin negoziata eta adostu ditzan laneko prebentzioko lurraldeordezkariaren figura lehenbailehen abian jartzea ahalbidetuko duten baldintzak eta edukiak, enpresa txiki eta ertainetan nahiz mikroenpresetan lan-istripuen aurka borrokatzera bereziki bideratua.

Iruñean, 2019 martxoaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Agoitzen ikastetxe berri bat eraiki dezan eta San Miguel ikastetxe publikoa eta Agoizko DBHI bi ikastetxe bereizi gisa har ditzan.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Agoitzen ikastetxe berri bat eraiki dezan eta San Miguel ikastetxe publikoa eta Agoizko DBHI bi ikastetxe bereizi gisa har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Agoizko herriak azken hogeitun urteotan bizi izan duen aldaketa soziala ikusita, Agoizko San Miguel DBHI ikastetxe publikoaren azpiegitura eta zerbitzuak murriztu dira gaur egun, eta ez datoz bat herriko eta eskualdeko egungo matrikularen bolumenarekin; dibertsitate funtzionalari dagokionez ere, ikastetxean hainbat egokitzapen egin beharra dago.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Agoizko San Miguel DBHI ikastetxe publikoak egindako eskariari jarraikiz DBHIko ikasleak hartuko dituen eraikin berri bat eraiki dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du San Miguel ikastetxe publikoa eta Agoizko DBHI bi ikastetxe bereizi gisa har ditzan DBHrako eraikina egina ez dagoen bitartean, eta, hartara, egun dauzkan giza baliabideak berrikus daitezzen eta horietako bakoitzari dagokiona eman dakion, bakoitzak dauzkan berrizantzen arabera.

Iruñean, 2019ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazi nahi baitizkie Igoa y Patxi SL, Transtiermes SL, Belainpe SL eta Igoa y Patxi Logística SL enpresetako langileei eta beren lan-baldintzak hobetzeko mobilizazioei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazi nahi dizkie Igoa y Patxi SL, Transtiermes SL, Belainpe SL eta Igoa y Patxi Logística SL enpresetako langileei eta beren lan-baldintzak hobetzeko mobilizazioei”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu ez dagoela ados inondik ere Auzitegi Nazionalaren epaiarekin, Altsasuko gazteei ezarritako zigor gogorak berresten dituelako.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabateko desadostasuna adierazten du Auzitegi Nazionalako Apelazioen Aretoaren epaiarekin, ezarritako zigor gogorak berresten dituelako eta kasu honen inguruan izan den desproporzioan sakontzen duelako. Halaber, ezinbestekotzat jotzen du justizia eta proporzionaltasuna gailentzea Auzitegi Gorenean jarritako errekursoaren ebazpenean.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro salatzen ditu zenbait sektore politikok eta mediatikok Altsasuko herriari eragindako eta oraindik ere eragin nahi dizkieten instrumentalizazioa eta manipulazioa, eta errefusatu egiten ditu behargabeko eta

tentsio giroa eta benetakoa ez den Altsasuko bizitzaren irudi bat sortzea xede duten jarrera eta jarduketak.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babes osoa adierazi nahi dio Altsasuko herriari, eta aintzat hartzen du hango bizilagunek bizikidetasunaren, normalizazioaren, justiziaren eta proporzionaltasunaren alde bi urte hauetan izandako jarrera gizalegezkoa eta eredugarria, eta dei egiten die bide horretan lan egiten jarrai dezaten. Hartara, herritarrei dei egiten die parte har dezaten Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske plataformek heldu den martxoaren 24an Altsasun deituriko manifestazioan”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan zergatik ez den onetsi Nafarroako Gobernuak hitzemandako Enpleguari buruzko Legea.*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan zergatik ez den onetsi Nafarroako Gobernuak hitzemandako Enpleguari buruzko Legea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldi honetan zergatik ez da onetsi Nafarroako Gobernuak hitzemandako Enpleguari buruzko Legea?

Iruñean, 2019ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, laguntza-produktuen sistema soziosanitario bat sortzeari buruzkoa.*MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, laguntza-produktuen sistema soziosanitario bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilari Miguel Laparra jaunak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan zer urrats egin da edo egingen da laguntza-produktuen sistema soziosanitario bat sortzeari begira? Zer urrats egin da laguntza-produktuen orientabide zerbitzua produktu horiek behar dituzten pertsona guztientzako arreta zerbitzua izan dadin?

Iruñean, 2019ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan zahar-etxeen fakturazioa dela-eta egindako auditoriaren emaitzari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan zahar-etxeen fakturazioa dela-eta egindako auditoriaren emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foru Ogasunak farmazia prestazioen kudeaketa zerbitzuko gainerako zahar-etxeen fakturazioari buruzko auditoria egin zuen 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an. Zertan da auditoria hori eta zer emaitza izan du? Departamentuak zer aurreikuspen darabil Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 21eko 1054/2016 Ebazpena aldatzeari begira?

Iruñean, 2019ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, 2019ko *English Week*-erako deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2019ko *English Week*-erako deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntzako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Hezkuntza Departamentuaren ustez, egokia al da Lehen Hezkuntzako 5. mailako 1.200 ikasle baino gehiagok lortu ezin izatea 2019ko *English Week*-eko toki bat?

– Handituko al duzue toki kopurua edo erreserban geratu diren ikastetxei eskainiko al diezue alternatibaren bat?

Corellan, 2019ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eremu ez euskaldunean Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko lehen mailan A eredia ezarriko duten ikastetxei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez euskaldunean Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko lehen mailan A eredia ezarriko duten ikastetxei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntzako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Eremu ez euskalduneko zer ikastetxetan ezarriko da lehen aldiz A hizkuntza-eredua Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko lehenengo mailan? Zenbat ikaslerekin? Zer arauditan oinarrituta?

– Eremu ez euskalduneko zer ikastetxek dute A eredia? Zenbat ikasle dago gela bakoitzeko?

Corellan, 2019ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Carlos Couso Chamarro jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamen bat aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko seigarren xedapen gehigarrian eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamen hori izapidetzeko onartzea eta Osoko Bilkurari igortzea honek aintzat har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarzas

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena

Talde parlamentarioek jasotzen dituzten funts publikoen gaineko gardentasun eta kontrol mekanismoak –zeinak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. artikuluan aipatzen baitira– indartze aldera, manu horretan zenbait aldaketa egin beharra dago.

Lehenik eta behin ezarri beharra dago taldeak behartuta egon beharko liratekeela funts horien gutxieneko ehuneko bat –% 75– bideratzera lan parlamentarioetara. Ehuneko hori handitu ahalko litzateke geroago, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren bidez handitzea egoki ikusiko balitz. Baldin eta talde parlamentarioek ez badute erabiltzen erregelamenduz dagozkien dirulaguntzen zenbatekotik zehaztutako ehuneko lan eskusiboki parlamentarioetarako, sobratzen den zenbatekoa Nafarroako Parlamentuaren kontuetara itzuli beharko da.

Bestalde, apartatu berri bat gehitzen zaio 35. artikuluko honi, ezartze aldera jasotako dirulaguntza parlamentarioen berariazko kontabilitate bat eraman beharra dagoela, bai horiek zuzen baliatzen direla justifikatzeko –hala ezarritako gutxieneko ehuneko nola zenbateko osoa–, bai gutxieneko gardentasun-irizpideetan sakontzen jarraitzeko.

Hori guztia, gainera, guztiz bat dator eta guztiz koherentea da Kontuen Auzitegiaren azken gomendioekin, zeinen bidez organo fiskaltzaileak alderdien finantzen gaineko kontrola indartzeko kontabilitate eta legegintza aldaketak proposatzen baititu.

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

Lehena. 35. artikuluko hirugarren apartatua aldatzen da. Hona testu berria:

“3. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, diru-kopuru horren zenbatekoa, mota eta hori jasotzeko betebeharrak ezarriko ditu, zeinen artean egonen baita Erregelamendu honetako 29.4 artikuluan ezartzen den bilkuretara joan beharra eta esleitutakoaren % 75eko gutxieneko ehuneko bat ezartzea, hileru bideratu beharko dena lan eta zeregin parlamentarioekin eskusiboki lotutako eginkizunetara. Xede horrekin zenbateko txikiago bat erabiltzen baldin bada, gainerakoa Nafarroako Parlamentuaren kontuetara itzuli beharko da”.

Bigarrena. 35. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

“5. Talde parlamentarioek jasotako dirulaguntza parlamentarioen berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, justifikatze aldera lan parlamentarioetara bideratu behar diren betekizuna –artikulu honen hirugarren apartatuan jasotzen dena– betetzen dela justifikatzeko eta, betiere, jasotzen duten zenbateko osoa justifikatzeko. Talde parlamentarioek Parlamentuko Mahaiaren esku jarri beharko dute kontabilitate hori hark eskatuz gero eta, betiere, urtero, kasuko aitorpenaren ondorengo urteko abuztuaren 1a baino lehen. Mahaiak, erabakitzen den aurkezpen-xehe-

tasunarekin, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Betiere, informazio hori Nafarroako Parlamentuaren Gardentasun Atarian egonen da baliagarri”.
